

# DIBORTZIOA

## 1204. URTEAN



**Nagore Irazustabarrena**  
Uranga  
@irazustabarrena

Kairo, 1204. Emakume batek atzerrian lanean ari zen senar merkatariairen gutuna jaso zuen, lehenago emazteak bidalitako dibortzio eskaerari erantzunez. Gutuna Kairoko genizahko 300.000tik gora dokumentuetako bat da, Fustateko Ben Ezra sinagogan aurkitutakoa. Historialarientzat idatzi horiek funtsezkoak izan dira Erdi Aroko Ekialde Ertaineko juduen bizimoduaren berri izateko.

Gutunaren egilea merkataria judua zen, eta Erdi Aroan ez zen hura lanbide samurra familiarteko harremanekin uztartzeko. Merkatariairen eta emaztearen izenik ez dakigu, baina bai senarrak denbora luzea eman zuela etxetik urrun, Aden hirian (India) eta inguruetan negozioak egiteko, horrek senar-emazteen arteko harremana gaiztotu zuela, eta, azkenean, emazteak dibortzioa eskatu ziola.

“Zure nahia hori baldin bada, ez dizut leporatuko. Itxaronaldia luzea izan baita. Eta ez dakit Sortzaileak berehala laguntza emango didan eta etxera joateko aukera izango dudana, ala luze joko duen, ezin baitut etxera esku hutsik itzuli. Horregatik, aske uzten zaituen zedula igortzea erabaki dut. Orain erabakia zure esku dago. Niregandik banandu nahi baduzu, onar ezazu arbuizate-agiria eta

aske izango zara. Baina zure erabakia eta nahia ez bada, ez ditzagun alferrik galdu zain eman dituzun urte hauek guztiak: agian ordaina geratu dugu eta, bestela, damuak zentzurik ez duen garaian damutuko zara beharbada”.

“Eta, mesedez, ez egotzi errua niri, ez zaitut sekula deskuidatu, eta beti egin dut ahalegina biok nire ohorea kaltetzen duten zurrumurruetatik babesteko. Zuk ukatu nauzu, ez alderantziz. Ez dakit erabakia zurea edo beste norbaitena den, baina, honen guztiaren ondoren, arren ez esan, ez zuk ez beste inork: hau da harengandik jasoko dugun saria eta ordaina. Egun guztia bihotz bakartia minez dut bananduta gaudelako. Min hori sentitzen dut lerro hauek idazten ari naizela. Baina erabakia zeurea da. Banandu nahi baduzu, aurrera; gauzak dauden bezala utzi nahi badituzu, berdin. Baina ez jarraitu lehen bihozkadari. Eskatu aholkua pertsona zintzoei eta pentsatu zuretzat hoberena zer den. Jainkoak lagun zaitzala erabaki egokia hartzen”.



WILLIAM HOOD DUNWOODY FUND

“Kairoko tapiz merkatariaik”, Jean-Léon Gérôme (1824–1904). Hizpide dugun eskutitzaren egilea ere merkataria eta Kairokoa zen, baina lanak Indiara eramanean zuten. Etxetik kanpo luze egon ondoren, emazteak dibortzioa eskatu zion eta senarraren erantzuna guganaino iritsi da.

Ez dakigu zurrumurruak zer zioten edo oinarri sendorik ote zuten, eta, batez ere, ez dakigu emazteak azkenean zer erabaki hartu zuen. Gutun hori eta beste asko Shelomo Dov Goitien (1900-1985) etnografo eta historialariak bildu eta itzuli zituen *Letters of Medieval Jewish Traders* (Erdi Aroko merkataria juduen gutunak) liburuan. Haren ustez, salerosle judua Egiptora itzuli zen, eta, emazteak arbuizate-agiria onartu izan balu, senarra ziurrenik Adenen geratuko zen. Hala, Goitienek dionez, “urte luze gogor haiek ez ziren alferrikakoak izan. Azkenean, bidaiariarekin elkartu zen”. ■



THE GRAPHICS FAIRY

## Basus gerra, 40 urteko mendeku katea

K.o. 494. urtean, Arabian, Saad Bin Shams izeneko gizon baten gamelua hil zuten Tahglib tribuko kideek. Gizon hura Al-Basus izeneko emakumearen babespean zegoen, eta hura Bakr tribuko buruzagiaren izeba zen. Piztear zen gatatzari haren izena ipiniko zioten.

Berehala, gameluaren heriotza mendekatzea erabaki zuten. Hala, Taghlib

eta Bakr tribu ahaideen arteko gatazka piztu zen eta 534. urtera arte iraun zuen mendekuzko gorpil zoro hark. 40 urteko gerra zentzugabea ez zen irabazle garbirik izan.

Egun, arabiar munduko hainbat tokitan Basus gerra mendekuek eragiten dituzten kalteen metafora gisa erabiltzen dute. ■